

E.K.B.: Euskal Kulturaren Batzarrea

Euskal indarrak koordinatzen ari

Orain dela bi urte erdi kaleratu zen EKBren asmoa.

Euskararen defentsa, berreskurapena eta normalizazioa eta euskal kulturaren eragintza dira EKBren helburu orokorrak. Helburu horiek inborrokan eta lanean diharduten talde, elkarte eta erakunde herritarren koordinazioa eta lanikidetzaren eratu nahiji ditu EKB-k, batetik; eta, bestetik, horrelako organismo berriak eta horien koordinazioa sustatu, herrietan eta kultur sail ezberdinetan.

Euskal kulturgintzaren barruan ikusten du EKBk euskararen berreskurapena; eta Euskal Herriaren askapen nazional eta sozialaren barruan, horren hizkuntzako eta kulturazko baieztatapena eta etorkizuna.

Kultur sail hauetako organismoak daude koordinaturik EKBn: Eskola, Unibertsitatea, Heilduen alfabetatze-euskalduntzea, Liburugintza, Antzerkia, Komunikabideak (Prensa, Irratia, Telebista), Bertsojaritza, Zinema, Administrazioa, Euskararen Modernizazioa, Euskal Herriaren Euskaraz erakundea.

Beste zenbait sailietako lagun-eta taldeekin batera, EHE erakundea izan da hasiera-hasieratik EKBren bultzatzaile eta eratzzaile nagusienetakoa. Euskararen defentsarako herriaren protagonismoa bizkortzeko eta eragiletzaren antolatzearen sorkuntza EHE, orain dela sei urte, he-



rritarren asoziazio gisa, dio Euskararen Plangintzarako Oinarriak izenez EKBk argitaraturiko dossierak. Defentsarekin batera, berreskurapenaren helburuari heldu dio EKBk, eta horretarako euskarazko kultur sailietan diharduten koordinazio eta lanikidetzari. Defentsa eta berreskurapena; Euskararen normalizazioaren bi alderdi bereiztezinak besterik ez dira, euskararen aldeko mugimendu herritarren barruan.

EHE ez al da laneko, kulturako, lanbideko, kiroleko, gastronomiako, hiritarren arteko eta bestelako erakunde erdaldunduatan infiltraturiko euskaldun militanten elkartea? Horren helburua ez al da


euskararen gizarteko erabilera zabaltzea eta normalizazioa? Berezi administrazioan, zerbitzu publiko nahiz pribatuetan eta lantegietan? Horregatik EHE eta EKB erabat osagarriak dira...

EKB ez da inolako gain-erakundea. Euskaraz eta euskararen alde diharduten erakunde kultural eta sozialaren koordinazioerako zerbitzua besterik ez da EKB.

Hiru mailetan dago eraturik EKB: a) Auzo edo herri mailan, bertako sail ezberdinetako talde, elkarte eta erakundeak koordinatuz; b) kultur sailen mailan, herrietako bakoitzean Euskal Herrian zehar diharduten talde eta elkarrekin koordinazioa eta lanikidetzaren eratzeko; c) Euskal Herri mailan, herrietako eta kultur sailietako EKBen koordinazio gisa.

Aurrera doan asmoa da EKB. Hainbat EKB sortu da dagoeneko herrietan. Bilekintza nagusi burutu ditu oraingoz EKBk: a) Euskal Herri mailako Euskararen eguna, aurtengo udaberriari; b) Euskal Kultur sailen arteko Dossieria, Euskararen Plangintzarako Oinarriak izenekoa, udaberri honetan JAKIN-ek zenbaki monografiko gisa argitaratu zuena.

EKBren asmoa, helburuak, erakundea, historia apurra eta bereziki pentsaera eta ekintzako abiaburuak ezagutzeko, dossier horretara jotzea du egokiena irakurleak.



EHE antolatzeke zenbait saio egin delarik

Ipar Euskal Herrian ere bada lana frango

Iparaldean ere EHE antolatzeke saioak izan dira, nahiz eta oraindik asmoa gorpuztu ez den. Izan ere, hango militante euskaltzaleek badute lana aski Seaskaren eta AEKren inguruan dagoen lan guztiarekin. Hala ere, euskararen bazterketa salatzen eta normalizazio bidean urratsak emateko ekintzak ez dira falta. Bide bazterretako errotulazioekin egiten direnak, esate baterako.

Herriko etxe edo udal batzuetan hartua dago jadanik herri-izena euskaraz ere sarreran idazteko erabakia, eta normalizazio itxurarik gabe egin den arren (frantsesezkoak du itxura ofiziala, eta euskarazkoa hizki euskaldunetan izkribatua dago, txuri-gorri-berde), aldateta bat izan da: udalek euskara nolabait onartzen dute; gero haie-

tan eztabaidatu beharko da normalizazio bidea zer den eta folklorereria merkeak salatu.

Baina herri gutxi dira oraindik horretan sartu direnak, eta Etxahun ahaztezinaren herrian bertan, sarreran nahiz irteeran Les Trois Villes irakurriko duzu. Eta Iruriko auzapeza Etxahunen semea da!

Horregatik aurkituko dituzue zenbait herri-izen EHEren ikurrak borrotuak. Baina euskaldunontzako iseka bat bada hainbeste promesaren ondoan oraindik ere Zuraide Souraide izatea, euskaldun usaina duen edozer suntsitu nahi dutenek nahiago dute euskarazkorik jarri ez eta langile bat pintaketa garbitzera bidaltzea. Zuberoan euskarazko izena paperez ezarri zuten panoen gainean, Alferrik.



Anai-arrebak ez etsi lehengo sustrairik ez utzi arima kendu nahi digutenei hortzak erakutsi, herri libre bat iritsi nahi badugu bihar-etzi, arma denetan ziurrena den euskarari eutsi.

Lopategi

EHEren kide izan nahi dut

EHE guztion lanarekin osatzen dugu. Zure laguntza emateko prest bazaude, bete ondoko txartel hau:

Izen-deiturak _____

Bizilekua _____

Herria _____

Banku edo Aurrezki Kutxa _____

Bulegoa _____

Kontu zenbakia _____

Gurekin harremanetan jarri nahi baduzu, hauek dira gure helbideak:

BIZKAIA: E.H.E. Astarloa 2,3. BILBO.
Tel: 94-4244870.

GIPUZKOA: E.H.E. Ikatz kalea 10
DONOSTIA3. Tel: 943-425213.

ARABA: E.H.E. Errege Katolikoak 15
GASTEIZ. Tel: 945-288922.

NAFARROA: E.H.E. Arturo Kanpion,
Komedia kalea 14. IRUÑEA. Tel:
948-222246.